

Proiektu bat ondo atera dadin eta ahalik eta arazo gutxien izan ditzagun, behar dugun gauza garrantzitsuena antolakuntza on bat da, zenbat diru gastatuko dugun eta zer materialak behar ditugun jakitea besteak beste. Horregatik, dokumentu hauen bitartez detaile hauek zehazten ditugu etorkizunean arazorik ez izateko.

Horretaz gain, erosleak ere behar ditugu gure proiektua aurrera atera dadin. Udalak gure proiektuan inbertitu nahi izateko, jendeari gure proiektua zer den erakutsi behar diogu; izan ere, jendea gure proiektua zer den ez badaki, ez du honen aplikazioan lagunduko, eta hirritarren laguntzarik gabe ezin izango dugu proiektua aurrera eraman.

Azkenik, gure proiektua ondo ateratzeko ezinbestekoa izango da hornitzaileak izatea, eta haien produktuak kalitatezkoak izatea, horrela azken produktua kalitate onekoa izango da eta ideia aurrera jarraitu ahal izango du.